Dialnet

## Dialnet-i buruz

**Dialnet** (Alerten Hedapena Sarean) dokumentuen baliabide eta zerbitzuen plataforma bat da. Horren helburua nagusia literatura zientifiko hispaniarra hobeto ikusi eta eskuratzean oinarritzen da.

- **Alerta bibliografikoen zerbitzu** bat da eta honek hedatu egiten ditu, era eguneratu batean, aldizkari zientifiko hispaniar guztien edukiak.
- **Hemeroteka hispaniar birtuala** da, diziplina anitzekoa, gizarte eta giza zientzien aldizkariak nagusi badira ere.
- Eduki zientifiko hispaniarrak dituen **datu-base** oso sakon eta eguneratu bat da. Hasierako hemerotekari bestelako eduki mota gehitzen joan zaionez (lanerako dokumentuak, liburu kolektiboen zatiak, doktoretza tesiak, liburuen erreferentziak), egun baliteke bera bezalakoen artean doan sartzeko datu-baserik handiena izatea.
- Testu osoan jasotako literatura zientifiko hispaniarra eskuratzeko **gordailua edo biltegia** da, sarrera ireki eta doakoaren aldeko apustu batekin.

Baliabide eta zerbitzu erabilgarriak eskaintzen ditu bai ikertzaile eta, oro har, erabiltzaileentzat bai argitalpenen editore eta liburuzainentzat ere.

## Dialnet-en edukia

Dialnet-ek duen helburua ahalik eta baliabide gehien biltzea da, ahal den neurrian horien testu osoak eskuratzeko aukera bilatuz, literatura zientifikora sarbide irekiaren aldeko apustua eginez:

- Aldizkarien artikuluak
- Lan kolektiboen artikuluak
- Doktorego-tesiak
- Lan-dokumentuak-Argitaraurrekoak
- Liburuak
- Aipamen bibliografikoak

Dialnet Interneten dohainik erabilgarri dagoen bere alorreko datu-base handiena da eta beronen hazkunde esponentziala, bai baliabideei bai erabiltzaile eta eskainitako zerbitzuei dagokienez, nahiko adierazgarria da. Hasierako orrian Dialnet-en zenbateko batzuei buruzko egunero gaurkotzen den informazioa agertzen da.

## Dialnet-ek Eusko Jaurlaritzako kideei eskaintzen dizkien zerbitzuak

- **Dokumentuen bilaketa**. Horrelakoetan, Dialnet baliabideak (aldizkariak, liburuak, tesiak…) biltzen dituen atari bat da eta eduki hispaniarren datu-base nagusienetako bat da. Horrez gain, testu osoko eduki ugari eskuratzeko aukera ematen du (2009ko urtarrilean 230.000 dokumentu baino gehiago dago).
- **Informazio alerten** harpidetza. Erabiltzaile bakoitzak bere “gustukoen aldizkariak” hauta ditzake argitaratzen diren zenbaki berrien aurkibideak jasotzen dituzten informazio alertak posta elektroniko bitartez jasotzeko. Era berean, eginiko bilaketak gorde ditzake eta, horietatik abiaturik, alertak definitu (e-mail edo RSS bidez).
- **Artikuluen hautaketa** bilaketetatik abiaturik.
- Bilaketetan hautatutako dokumentuak norberaren kudeatzaile bibliografikora **esportatzea** eta/edo norberaren posta elektronikoko kontura bidaltzeko aukera.

- Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusian dokumentuak **erabilgarri** daudenari buruzko informazio zehatza.
- Erabiltzaileak eta beraien liburutegien arteko eragina. **Zure eskaerak zuzenean Liburutegi Nagusiaren postontzira helduko dira eta honek eskatutako dokumentuaren kopia bat egiteko eta zuri ahalik eta lasterren bidaltzeko ardura hartuko du**.

  Horretarako, ezinbestekoa da **Eusko Jaurlaritzako posta-kontua** (**xxx@ej-gv.es**) ematea erregistratzeko prozesuan zehar.

## Erabiltzaile bezala erregistratzea

**Dialnet**-en erabilgarri dauden funtzionaltasun askok erabiltzaile bezala erregistratzea eskatzen du. Erabiltzaile bezala erregistratzea aske eta doakoa da.

**Dialnet**-eko erabiltzaile erregistratu bezala alta egiteko ondorengo esteka honetan eskuragarri dagoen formulario bete behar da http://dialnet.unirioja.es/servlet/altaonline.

Formularioa 3 ataletan banatuta dago.

*Información Personal*

Izartxoarekin markatutako eremu guztiak ezinbestez bete behar dira. "Tipo de institución" izeneko eremuan goitibeherako menuan norberaren erakundea aukeratu behar duzu, horietako bat ere ez bada zurea ## **No vinculado a ninguna institución** ## aukeratu behar duzu edo **No pertenezco a ninguna institución del desplegable** kontrola aukeratu.




*Información de la cuenta*

Atal honetan erabiltzailearen izena eta nahi duzun pasahitza sartu behar duzu. Datu hauek dira geroago erabiliko direnak Dialnet-en erabiltzaile erregistratu bezala sartzeko.

Era berean, galdera bat eta erantzun bat sartu behar dira, erraz gogoratzekoak, eta horiek sistemak erabiliko ditu erabiltzaileak bere pasahitza ahaztuko balu.


Información de la cuenta

Deberá recordar esta información.

* Usuario

La contraseña debe tener 8 o más caracteres y no debe ser la misma que el nombre de usuario.

* Contraseña

* Repetir contraseña

En los siguientes campos se le solicita que introduzca una pregunta **secreta** y su correspondiente respuesta.
Por ejemplo, pregunta: ¿cuál es el segundo apellido de mi madre?, respuesta: Martínez.
Esta información podría ser utilizada en el futuro si **Dialnet** necesita verificar su identidad.

* Pregunta

* Respuesta

*Materias de interés*

Sistemak aukera ematen du erabiltzailearentzat interesgarriak diren gaiak hautatzeko eta posta elektroniko bat bidaliko dio gai horri buruz gehitzen doazen aldizkari berriekin. Orain arte Dialnet-en ez zeuden baina gehitzen joan diren aldizkari berrien tituluen berri emango dizu.

GARRANTZIZKOA: Aldizkari bakoitzaren argitaratzen diren zenbaki berrien edukien informazio alertak jasotzeko, aldizkarien alerta harpidetu behar duzu.

Bukatzeko, “Aceptar” botoian zapaldu.

Prozesu hau bukatu eta berehala, Dialnet-ek mezu bat bidaliko du **erabiltzaile berriaren posta elektronikoko postontzira** bere profilaren datuak jasoz. Bertan esteka bat agertuko da, **Finalizar Alta**. Bertan zapaldu beharko duzu sisteman alta egitea behin betikoa izan dadin.

Erabiltzaileak sisteman baja egitea nahi badu, horrela egin dezake ondorengo helbide honetara dialnet@bib.unirioja.es posta elektronikoko mezu bat bidaliz eta mezuaren gaian 'BAJA' hitza idatziz.

## Erabiltzaile erregistratu bezala sartzeko

Hemendik aurrera, **Dialnet**–en erabiltzaile erregistratu bezala sartzeko pantailaren goiko aldean “usuario/contraseña” sartu behar duzu:


Usuario

Contraseña

Entrar

Horrela, **sistemak Eusko Jaurlaritzako kidea den erabiltzaile bezala onartuko zaitu eta zure eskaerak zuzenean Liburutegi Nagusiaren postontzira helduko dira eta honek eskatutako dokumentuaren kopia bat egiteko eta zuri ahalik eta lasterren bidaltzeko ardura hartuko du**. Gainera, aldizkari berrien **harpidetza** egiteko aukera izango duzu, sisteman **bilaketak** egin, sistemaren **informazio** guztia eskuratu eta zure **profila** ere aldatu. Bestalde, unean unean, sisteman gertatzen diren berrikuntza guztien berri jasoko duzu.

Menu-barran “**Mi Dialnet**” izeneko ikono berria agertuko da eta, hortik, erabiltzailearen profila ikusi eta aldatu ahal izango duzu baita harpidetzan hartutako aldizkariak kudeatu ere.

**Laguntza teknikoa *(Dialnet-en on-line laguntzarako estekak)***

*Alertas bibliográficas*

- Suscribir alertas de revistas
- Suscribir alertas de búsquedas

*Búsquedas en Dialnet*

- Búsqueda rápida
- Búsquedas de documentos
- Búsqueda de revistas
- Búsqueda de tesis
- Búsqueda de autor

*Trabajando con los resultados*

- Visualización de documentos
- Selección de documentos
- Exportar resultados
- Información de revistas
- Guardar búsquedas

*Integración de Dialnet en el Navegador*

- http://dialnet.unirioja.es/ayuda/SPA/ayuda_buscadores.jsp

Laguntza gehiago nahi izanez gero: http://dialnet.unirioja.es/ayuda/SPA/